

### LIBURUXKA BAT EBALUATZEKO ERRUBRIKA

ALDERDIAK	4 BIKAIN	3 ONGI	2 HOBETU DAITEKE	1 GUTXI
<b>LIBURUXKAREN INFORMAZIOA</b>	Datu garrantzitsu guztiak agertzen dira (izenburua, lekua, eguna, ordua, hartzaileak...). Datu garrantzitsuak behar bezala antolatuta eta nabarmenduta daude.	Datu garrantzitsu guztiak agertzen dira (izenburua, lekua, eguna, ordua, hartzaileak...). Datu garrantzitsuak antolatuta daude, baina ez nabarmenduta.	Datu garrantzitsu batzuk agertzen dira (izenburua, lekua, eguna). Datu garrantzitsuak antolatuta daude, baina ez nabarmenduta.	Agertzen diren datuak ez daude osatuta, eta ez daude garrantziaren arabera antolatuta ez nabarmenduta.
<b>IRUDIAK</b>	Irudiak egokiak dira edukiari eta formari dagokienez, lotura dute gaiarekin eta neurri egokia dute daukaten garrantzia eta osatzen duten testua kontuan hartuta.	Irudiak egokiak dira edukiari dagokionez, lotura dute gaiarekin, baina, neurriari dagokionez, ez dira egokiak osatzen duten testua kontuan hartuta.	Irudiak ez dira oso egokiak edukiari eta formari dagokienez. Guztiek ez dute loturarik gaiarekin, eta neurria ere ez da egokia ematen duten informazioak duen garrantzirako.	Irudiak ez dira egokiak edukiari eta formari dagokienez. Apaingarriak baino ez dira, eta ez dute zerikusirik gaiarekin.
<b>ITXURA OROKORRA</b>	Erakargarria eta originala da. Xede duen publikoari ondo egokitua.	Bere helburua betetzen du, produktu egokia da xede duen publikoarentzat.	Liburuxka ez da oso erakargarria, baina egokia da xede duen publikoarentzat.	Liburuxka ez da egokia xede duen publikoarentzat, ez da oso erakargarria eta ez du bere helburua betetzen.
<b>INFORMAZIOAREN ANTOLAMENDUA</b>	Informazioa oso ondo antolatuta dago, eta oso argia eta irakurterraza da.	Oro har, informazioa argia da eta ondo antolatuta dago.	Informazioa ez dago oso argi antolatuta. Ez du irakurketa errazterako aukerarik ematen.	Informazioa ez da argia eta desordenaturik dago, eta, beraz, zaildu egiten du irakurketa.

